

KOSTUEN EGITURA

Proiektua martxan jartzeko lehenik inbertsio bat egin beharko dugu: Lehenik almazen bat beharko dugu atea gordetzeko, baita sarraila magnetikoak sortzeko tailer bat ere. Honetarako poligono txiki bat alokatuko genuke hasierako kostua ez oso handia izateko baina enpresa handitzen joan ala erostea komenigarria ikusten dugu.

Gainera sarrailak sortzeko makina bat ere beharko dugu. Hau izango da inbertsio handienetako bat. Hasieran bakarrarekin nahikoa izango dugu baina denborarekin gehiago beharko ditugula espero dugu.

Etxez etxe atea instalatzen joan behar dugunez furgoneta bat ere beharko dugu. Hasiera batean bakarrarekin nahikoa izango dugu baina eskaerak igotzen joan ala gehiago beharko ditugu.

Hau ikusita inbertsioa nahiko handia dela ikusi dugu, zatirik handiena makina bat erostea izango dela aurreikusten dugu. Ala ere hasiera batean almazena eta furgoneta alokairuan hartuta inbertsioen balioa jetsiko dugu.



Kostu hauez gain langileen soldatak ere kontuan hartu behar ditugu. Honek kostua handia suposatzen du izan ere soldatez gain gizarte segurantzaren etab. ordaindu behar bai dira.

Beste kostu garrantzitsu bat amortizazioa izango da. Almazena alokairuan hartuko duguez ez du amortizaziorik izango. Baina behin erosten ditugunean hauek ere amortizazio kostuen barruan sartu beharko dira. Hau kontuan izanda amortizazio kostu garrantzitsuena makinariarena izango da. Makina honi 15 urteko bizi iraupena aurreikusten diogu. Beraz hilabetero diru kantitate bat gordetzen joan beharko dugu etorkizunean makinaria berritzeko.

Gainera kostu aldakorrak ere izango ditugu. Hau ate bakoitza sortzeko gastatu behar duguna izango da. Hau da egurrezko atea, iman xaflak eta imanezko sarraila. Gainera hauen muntaia egiteko beharrezko torniloak, bisagrak etab. Hauek sortzen ditugun ate bakoitzaren arabera aldatuko dira. Hau da orduan eta ate gehiago sortu kostu hauek handitu egingo dira.

KOSTU ALDAKORRAK	KOSTU FINKOAK
Gasolina	Tailerraren alokairua 1.000€/hilean
Iman xaflak	Aseguruak
Egurra	Web-a eramaten duen pertsona 1000€/hilean gutxienez (14 paga)
Argia	Esku lana (lanaldi osoa) 1.000€/hilean gutxienez (14 paga)
Ura	Furgonetaren amortizazioa 150€/hilean
Matxurak	Tailerreko Makinariaren amortizazioa 950€/hilean

*BEZ-a ez dugu kontuan hartu.

Kostu hauez gain hasierako inbertsio bat beharko dugu. Kalkulatu dugu 130.000€ inguruko inbertsioa beharko dugula atear egiteko beharrezko makineria erosteko, gainera beste 15.000€ inguru banaketarako furgoneta bat erosteko ere.